

KASU BATZUETAN KOMENI DA BATERE ALKOHOLIK EZ KONTSUMITZEA


18 urtetik beherakoak

Organismoa heltzen ari den bitartean alkohola edatea bereziki kaltegarria da.

Garuna, gibela eta pankreak oso kalteberak dira eta, horiek garatzen ari diren bitartean, oso eragin kaltegarriak jasan ditzakete.

Gehiegizko kontsumoa edo helduaroan edari alkoholdunetikiko mendekotasuna garatzeko aukerak areagotzen dira.

Azken ikerketa zientifikoek erakutsi dute nerabezaroan alkoholaren kontsumoak eta, bereziki, **gehiiegizko kontsumoak** nerbio-sistema zentrolean eragina izan dezakeela.



Garunaren garapenean eragiten du, kontuan hartuta heltzeko aldia duela orduan, eta horren **etorkizuna eta ahalmen indibiduala mugatzen ditu.**

Besteak beste, **hipokanpoan** du eragina, garunean **memoriarekin** eta **irakaskuntzarekin** lotutako gunean.

Biharamun- edo abstinentsia-sintomak eragiten dituenean, kalteak gertatzen dira

memorian, ikaskuntzan eta zereginen plangintzan.

Nerabezaroan alkohola kontsumitzeak eskola-errendimenduan eta pertsonen arteko harremanetan du eragina, eta indarkeriazko jokabideak eta jarrera arriskutsuak eragiten ditu, besteak beste sexu-jardute arriskutsuak edo alkoholaren eraginpean gidatzeagatik.

Haurdunaldia edo edoskitzaroa



Haurdunaldian alkohola edateak arrisku larria dakarkio umekiari, plazenta-barrera zeharkatzen baitu; plazenta horrek babesten du umekia, garatzen ari denean.

Medikamentu edo droga psikoaktibo batzuk hartzea, toxikotasunaren eragin indartzaileagatik.

Lan edo ikasi bitartean.

Ibilgailuak gidatu edo makinak erabiltzea.